

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu du, 500 onuradun izango dituen gizarteratze-proiektua finantzatzeko

La Caixa eta Caja Navarra fundazioen 120.000 euroko ekarpena egingo diote ERSISI proiektuari; Tuteran eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko udalerrietan garatuko da proiektu hori

Asteartea, 2017.eko urtarrilak 24

Miguel Laparra Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordeak gaur goizean sinatu du lankidetzeta-hitzarmena La Caixa Fundazioko eta Caja Navarra Fundazioko ordezkariekin; hitzarmen horren bitartez, erakunde biek hartzen du ERSISI proiektua finantzatzeko 120.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa. [ERSISI](#) Nafarroako Gobernuaren gizarteratze-proiektua da, Tuteran eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko udalerrietan langabezian dauden 500 lagun gizarteratzen laguntzeko diseinatuta dagoena.

ERSISI "Enhancing the Right to Social Inclusion through Service Integration" (Gizarteratzeko eskubidea indartzea, zerbitzuen integrazioaren bitartez) proiekturako ekarpena hiru fasetan egingo da: 40.000 euro hitzarmena sinatzerakoan; beste 40.000 2017ko azkeneko hiruhilekoan, eta gainerako 40.000 euroak 2018ko azkeneko hiruhilekoan. Erakunde biek emandako dirua tailerrak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzerako, zein pertsona bakoitzaren neurria egindako lan-trebakuntzako ekintzetara bideratuko da.

Laparra lehendakariordeak eskerrak eman dizkie erakunde biei proiektuan inplikatzeko; "proiektu honen elementu berritzailea da gizarte eta enplegu zerbitzuen baterako lan-jarduna, eta hori guztiz beharrezkoa da iraupen luzeko langabeziak kaltetutako pertsonentzako".

Ana Diez Fontana Caixabanek Nafarroan duen lurralde-zuzendariak adierazi du pozik dagoela La Caixak proiektu horretan parte hartzeagatik, "enpleguaren bitartez, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea helburu duen proiektu batean, horixe da eta gure gizarte-ekintzaren ildo estrategikoetako bat".

Gemma Botin Caja Navarra Fundazioko Gizarte Arloko arduradunak ere proiektua berritzailea dela nabarmendu du, eta gogorarazi du enplegua dela "pertsonak benetan gizarteratzea lortzeko" bultzatu behar dugun alderdia.

Proiektuaren xedea

Proiektu esperimental honen helburuak dira langabezian dauden

herritar ahulenei erantzuteko eredu berri bat diseinatzea eta frogatzea, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen baterako esku-hartzean oinarritzen dena; Errenta Bermatuaren erreformak identifikatzea eta testatzea; eta toki-mailan enplegu-politika aktiboak planifikatzeko sistema berria garatzea eta ezartzea, eragile publiko eta pribatuen arteko aliantzen bitartez.

ERSISI proiektuaren aurrekontu osoa 1.852.284,11 €-koa da, eta europar funtsekin finantzatu da % 75a; 36 hilabeteko iraupena izango duela aurreikusten da, 2016ko irailetik 2019ko irailera.

Bi eratako ekintzak egingo dira gaur hitzartutako finantzazioari esker.

Batetik, tailerrak, jardunaldiak, mintegiak eta proiektio publikoko beste jardura batzuek antolatzearekin lotutakoak. Bestetik, enplegagarritasuna duten pertsonak aktibatzeak kontingentzi funts malgua erabiltzea, partaideen banan-banako trebakuntza-beharrak asetzeko balioko duena eta, ahal den neurrian, tokian tokiko enplegatzaileekin lankidetzan eta partaideak enpresatan trebatuta.

Gizarte-berrikuntza

Zentzu horretan, adierazi behar da gizarte-berrikuntzako europar proiektu bat izateak esan nahi duela ikerkuntzako eta zabalkunderako jarduerak garrantzia handia hartzen dutela.

Mota horretako ekintzen artean, nabarmentzekoak dira ondorengo hauek:

- Bi eguneko tailerra, gizarte eta enplegu zerbitzu integratuak emateko nazioarteko jardunbide onenei eta esperientziari buruzkoa.
- Bi eguneko Mintegia/Tailerra, zerbitzuen integrazioko eta Errenta Bermatuko eredu berriaren prozedura, protokolo eta agiriei buruzkoa.
- Hainbat tailer, trebakuntza eta gaikuntzakoak, eta gida metodologikoak prestatzeko eta zerbitzu integratuak emateko integrazioko eredu berria abian jartzekoak.
- Nazioarteko tailerra, ERSISI metodoak ekarri dituen nazioarteko esperientzien inpaktuaren bitartekotzari buruzkoa.
- Bi mintegi; bata proiektua aurkezteko, eta bestea proiektuaren emaitzak alderatzeko.
- Ordezkaritza politikoei, profesionalei eta erakundeei zuzendutako azken hitzaldia.

ERSISI proiektua izan zen Europako Batzordeak finantzatzeko iazko abuztuan aukeratutako Espainiako programa bakarra, EASI programaren VP/2015/011 deialdiaren barruan; EASI programa gizarte-politikako berrikuntzari eta zerbitzu sozialen eta enplegu-zerbitzuen arloko erreformak laguntzeari buruzkoa da.

Hitzarmena sinatu orduko sartzen da indarrean, eta 2018ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.